



Tolosako 37. Abesbatza Lehiaketa, gero eta gertuago

PREST ▶ Atzo aurkeztu zuten, Donostian, Tolosako 37. Abesbatza Lehiaketa; hilaren 28tik azaroaren 1era izango da

PARTAIDEAK ▶ Europako 12 herrialdeko eta Asia, Amerika eta Ozeaniako herrialde banako abesbatzak ariko dira lehian ▶ 2

Emakume baserritarraren eskubideen aldeko aldarrikapena, Zizurkilen

TOLOSALDEA ▶ Baserria eta emakume baserritarrak izan ditu hizpide Begoña Aristi Gipuzkoako EHNEko idazkariak ▶ 5

IBARRA ▶

Hainbat herritarrek plataforma berria sortu dute

Arau subsidiarioen inguruan eztabaida bultzatu nahi dute ▶ 6

VILLABONA ▶

Behar-Zanakoak, Endika Abril txapelketako finalean

Oiartzungo frontoi berrian jokatuko dute, bihar ▶ 4

M. SAN SEBASTIAN



Udaltalde 21 Ernioaldeak Herri Batzarrak ospatuko ditu datozen hilabeteetan herritar guztiak, Tokiko Agenda 21aren bitartez, parte har dezagun gure herriaren etorkizunean. Parte hartu ezazu. Zer esanik baduzu!!!

1.HERRI BATZARRAREN TOKIAK ETA DATAK

Aduna: azaroak 23an, udaletxean, 20:30ean
Anoeta: azaroak 29an, udaletxean, 19:30ean
Asteasu: azaroak 10ean, udaletxean, 19:30ean
Irura: azaroak 24an, udaletxean, 19:30ean
Hernalde: azaroan zehar bilduko da
Villabona: abenduak 1ean, udaletxean, 19:30ean
Zizurkil: azaroak 17an ordua eta lekua zehaztear dago

PARTAIDEAK:



TOLOSAKO 37. ABESBATZA LEHIAKETA ▶

Mundutik, herrira

Tolosako 37. Abesbatza Lehiaketa aurkeztu dute; mundu osoko taldeak ariko dira



Ezker-eskuin: Kutxako Gizarte Ekintzako zuzendari Jesus Mari Alkain, Eusko Jaurlaritzako Kultur kontseilariorde Gurutz Larrañaga, CIT-TEEko lehendakari Ana Artetxe, Foru Aldundiko Kultura zuzendari Imanol Agote eta Tolosako alkateorde Olatz Peon, atzo, Donostian. I. ETXEBESTE

IRATXE ETXEBESTE

«Urtebete gehiagoz, gogoz gainekia ospatuko dugu gure herrian Tolosako Abesbatza Lehiaketa. Aurtengoan lehiaketaren 37. edizioa izango dugu. Urte osoan zehar abesbatza musika onenarekin eta abesbatza nazio eta kulturen esparru zabalenera ordezkariekin topaketa erakargarri eta berri bat posible egiteko gogor lan egin dugu. Merezki izan duela uste dugu eta gurekin Europako, Asiako, Amerikako eta Ozeaniako abesbatza garrantzitsuak izateak ilusioz betetzen gaitu». Modu horretara egin zuen hitz atzo CIT-TEE, Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakari Ana Arretxek aurtengo Abesbatza Lehiaketa aurkezteko Eusko Jaurlaritzak Donostian duen egoitzan antolatutako prentsaurrekoan.

Xehetasun gehiagoren berri ere eman zuen tolosarrak: «Lehiaketako egitarauak Europako 12 herrialdetako eta Ameriketako, Asiako eta Ozeaniako herrialde banatako abesbatzak biltzen ditu. Gainera, eta lehiaketatik kanpo, bi ahots talde zoragarriekin gozatzeko aukera izango dugu: Die Singphoniker (Alemania) eta Claras Luces (Kuba); hilaren 31n eta azaroaren 1ean, San Frantzisko elizan izango dira kontzertuak, hurrenez hurren».

Tolosako alkateorde Olatz Peonen hitzetan, «eskertzeko» da CIT-TEEK Abesbatza Lehiaketa antolatzearekin egi-

ten duen lana, besteak beste, lehiaketak «elkartruke kulturala bizitzeko aukera» ematen diolako herriari: «Tolosarentzat oso aberasgarria da hori». Horrez gain, «euskara sustatzeko parada» ere ematen duela adierazi zuen Peonek. Lehiaketan aritzeko ezinbestekoa izaten du talde bakoitzak urtero obra kopuru jakin bat euskaraz eskaintzea, izan ere. Ildo horretatik, hausnarketa egin du alkateordeak: «Gozagarria izango da aurtengo Zelanda Berrikoak euskaraz entzutea».

Eusko Jaurlaritzako Kultur kontseilariorde Gurutz Larrañagak, bestalde, Tolosako Abesbatza Lehiaketak «kan-

tuaren bitartez irudi ona islatzen» urteak daramatzala ekarri zuen gogora: «Ahogustu ona eramaten dute partaideek Tolosatik, eta Euskal Herritik, eta haiek gure hizkuntzan abesten dute, gainera».

«Abesbatza zirkuitua»

Tolosako Abesbatza Lehiaketaren harira abesbatzen zirkuitu bat osatzen da urtero, eta aurtengoan hamahiru eguneko izango da zirkuitu hori. «Guztira, 75 emanaldi eskainiko dituzte Tolosara etortzen diren abesbatzek 40 herri ezberdinetan: Nafarroan, 25 izango dira 20 herritan; Gipuzkoan, 22

emanaldi 7 herri ezberdinetan; Bizkaian, 15 saio 6 herritan, eta Ipar Euskal Herrian, Akitanian eta Aragoian eta Kantabriar (Espainia) ere eskainiko dituzte kontzertuak abesbatzek: 13 emanaldi 7 herritan, hain zuzen ere», adierazi zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura zuzendari Imanol Agotek.

Bere ustetan, «zilegi da emanaldi irtenbidea emateko eskala ekonomiaz baliatzea, eta, zentzu horretan, kultur kudeaketari dagokionean CIT-TEEK egiten duen ahaleginari «ererdugarr» irizten dio.

Hilaren 28an hasiko da Tolosako 37. Abesbatza Lehiaketa, eta azaroaren 1ean amaituko. Bertan jardungo duten abesbatza guztietatik bakar bat ere ez dela Euskal Herrikoa, eta horrek atentzioa eman behar duela zioen, bestalde, Kutxako Gizarte Ekintzako zuzendari Jesus Mari Alkainek. Iritzi berekoa zen Ana Artetxe. «Izaten den maila ikusita, euskal taldeei errespetua ematen die lehiaketa honetan, etxean parte hartzeak, baina datozen edizioetarako gonbita egin nahi diegu».

Lehiaketaren gune tradizionala, Leidor aretoa, itxita izango da urtebetez konponketa lanak direla eta. «Erosotasuna hobetzea, teknologia aurreratuenera egokitzea eta, batez ere, akustika hobetzea bilatzen dugu horrekin», zioen Peonek: «Horregatik, aurtengo edizioan lehiaketa gune berri batera aldatu behar izan dugu: Tolosako Kirol Hiri berrira, alegia».

Garrantzi handiko lehiaketa

Tolosako Abesbatza Lehiaketa urtero ospatzen da herrian sortu zen urtetik: 1969tik, hain zuzen ere, eta beti Santu Guztien Egunaren bueltan izaten da. Bere helburua, «estilo, interpretazio, abesbatza literatura, ahots heziketa eta herrialde bakoitzeko era ezberdinen arteko trukea ahalbidetzeko munduko abesbatzarik onenak biltzea da, eta, era berean, Euskal Herriko musika tradizioa eta kultura ezagutzera ematea», dio TEEKo lehendakariak.

Bere sorreratik TEEK antolatutako izan du Tolosako Abesbatza Lehiaketa irabazi asmorik gabeko kultur erakunde pri-

batu gisa. Bere helburua «gure herrialdeko kultura eta turismoa bultzatzea da, eta, horregatik, 1994an onura publikoko elkarte izendatu zuten. Hasieratik zeregin garrantzitsuak betetzen du TEEK herriko kultur bizitzan, hainbat ekintza antolatuz: Txotxongilo Jaialdia eta Zumardi natur jardunaldiak, besteak beste.

Urteen joanarekin, munduko abesbatza lehiaketa garrantzitsuenetakoa bilakatu da Tolosakoa. Sona handiko lehiaketa da egun, eta askok nahi izaten dute bertan lehiatu. 37. edizioa arte mundu osoko 1.000 abesbatza inguruk hartu du parte Tolosan. ◀

ANA ARRETXE

TEE-KO LEHENDAKARIA

«Europako hamabi herrialdetako eta Asia, Amerika eta Ozeaniako herrialde banatako abesbatzak ariko dira»

OLATZ PEON

TOLOSAKO ALKATEORDEA

«Elkartruke kulturala bizitzeko eta euskara sustatzeko aukera ematen dio Abesbatza Lehiaketak Tolosari»

GURUTZ LARRAÑAGA

EJ-KO KULTUR KONTSEILARIORDEA

«Urteak daramatza kantua bitartez irudi ona islatzen; ahogustu ona eramaten dute partaideek lehiaketatik»

IMANOL AGOTE

FORU ALDUNDIKO KULTURA ZUZENDARIA

«Guztira, 75 emanaldi eskainiko dituzte Tolosara etortzen diren abesbatzek 40 herri ezberdinetan»

JESUS MARI ALKAIN

KUTXAKO GIZARTE EKINTZAKO ZUZENDARIA

«Jardungo duten abesbatza guztietatik bakar bat ere ez da Euskal Herrikoa; atentzioa ematen du»

Tolosako alkateordearen esanetan, «gure lehiaketak erakartzen duen entzule kopuru handia hartzeko gai den leku bakarra» da Usabal kirol eta aisialdi gunea.

«Gure entzulegoa da beste abesbatza topaketa edo lehiaketengandik bereizten gaituen ezaugarria». Halaxe uste dute atzo Tolosako Abesbatza Lehiaketa aurkezteko ekitaldira bildu zirenek. Horren harira, halaxe adierazi dute: «Sor daitzekeen deserotasunen aurrean ulermena espero dugu».

3.000 euroko aurrekontua dute Leidor berritzeko lanek, eta Peña Gantxegiren taldeak hartuko du gidaritza. Olatz Peon alkateordeak jakitera eman duenez, beranduenez ekainaren 18rako izan beharko dute obrek bukatuta, egun horretan Europako Abesbatza Lehiaketa ospatuko delako Tolosan. Eta, nola ez, Leidorren beharko du izan.

KULTURA ▶

San Esteban auzoko XVIII. Kultur Astea, azken txanpan

Lord Sassafras taldearen emanaldia da gaur protagonista; bihar auzokide bazkariarekin emango diote amaiera asteari

NOELIA LATABURU

Berazubi auzoko jaien lekuko hartu du aste honetan San Esteban auzoko XVIII. Kultur Asteak. Egunotan makina bat ekitaldi garatu dituzte auzo tolosarreko biztanleek. Partaide-tza ere ona izan dute eta, orain, azken txanpan sartu dira. Ez dira nolanhikoak, baina, bi egun hauetan izango direnak.

Atzo gauean hasi ziren lehen musika ekitaldiak San Estebanen, batik bat gazteei zuzendurikoak. Afrikako doinuekin hasi zen emanaldia, ADN Fuzz Afrikako perkusio taldearen ikuskizunaren eskutik. Ondoren, DJ Talok eta Aritz Sound System-ek gaueko ordu txiki-tara arte mantendu zuten festa.

Gaur ere, gazteek zein helduek hainbat ekitalditan parte hartzeko aukera izango dute. Hain zuzen ere, umeentzako jolasak antolatuta dituzte arratsalderako: altxorraren bila, buruhandiak, txokolate jatea eta

EGITARAUA ▶

San Esteban auzoko Kultur Astea azkenekoetan bada ere, oraindik ere bada zer gozatua.

GAUR

- 16:00. Altxorraren bila.
- 16:00. Mus Txapelketa.
- 16:30. Haur jolasak.
- 18:00. Buruhandiak.
- 19:00. Txokolate jatea.
- 00:00. Batuketako euskal sanba taldearen emanaldia. Ondoren, Lord Sassafras.

bestelako aisirako jolasak. Hel-duagoek mus txapelketan parte hartu ahal izango dute. Eta, ohi bezala, gauerdiko kontzertuak gazteei zuzendurikoak izango dira.

Azken egunean goizean goiz iratzarriko dira auzotarrak, herriko txistulariek eskainiko duten dianarekin. Txistuen doinuei trikitixa doinuek jarraituko diete eta, ondoren, meza

BIHAR

- 09:00. Diana herriko txistulariekin.
- 10:00. Trikitixa auzoko baserriarrek.
- 11:00. Meza auzoko hildakoen alde, San Frantzisko elizan.
- 12:30. Toka txapelketa gizonezkoentzat eta emakumeentzat.
- 14:30. Auzokide bazkaria. Ondoren, dantzaldia Algara orkestrarekin.

elizkizuna ospatuko dute San Frantziskon, auzoko hildakoen alde. Eguerdian kirolarentzat tartea hartuko dute, gizon nahiz emakumezkoentzat, toka txapelketa izango baita. Kultur Asteari amaiera emateko, auzokideen arteko bazkaria antolatuta dute egitarauaren barruan. Bazkalostean, Algara orkestrak alaituko ditu azken uneak.

Lord Sassafras, gaurko ekitaldi nagusia

Jordi Gayosok duela 25 urte hartu zuen Lord Sassafras izengoitia, musikaren munduan sartzea erabaki zuenean. Orduetik, hamaika eszenatoki bisitatu ditu, bakarka zein taldeka. John Landis Fans eta Zaragoza Accion Sonora taldeetan aritu ostean, DJ bakarlari moduan hasi zen. Garai honetan Espainian, Eslovenian, Belgikan, Danimarkan, Suitzan, Frantzia, Hungarian,

Turkian eta Sizilian aritu zen, besteak beste. Munduko musikan espezializatua, jaialdi, festa eta klubetan jo du Gayosok.

Afrikan ere eskaini ditu kontzertuak, bai eta Hego Amerikan ere. Bakarlarienez geroztik, *Ezekiel* izeneko kale ikuskizunaren musika osatu du, bai eta Proyecto Babel konpainiako *A Solas* eta *Momentos* ikuskizunenak ere. Bere azken proiektua, ZAS izene-

koa, Zaragozan egin du eta, halaber, ACTUAL kultur garakideen jaialdia antolatzen du duela sei urtetik, Errioxan.

Urte hauen guztien eskarmentua bizkar gainean, San Estebanera helduko da, World Music, rock eta etno-tecnoragina duen musika aurkeztera. Nahasketa hau *Mafia Mundialaren* izenarekin baitaiatu du. Festa giroa ziurtaturik, beraz, gaur gauean. ◀

HEZKUNTZA ▶

Gurasoei zuzenduriko topaketak

Tolosako Udalak 0 eta 16 urte bitarteko seme-alaben gurasoentzat topaketak antolatuta ditu 2005-2006 ikasturterako. Azaroan hasiko dira Errota Haur Liburutegi berriari; bi talde egingo dira, bata euskaraz, gaztelaniaz bestea. Izena eman nahi duenak 6 euro ordaindu beharko ditu udaletxeko Osasun eta Gizarte zerbitzuetan, 10:00-etatik 13:00etara, asteleheneetik ostiralera (ostegunak salbu). Plaza mugatuak izango dira.

GIZARTEA ▶

Barrikako erahilketa salatuz

Emakumeon aurkako indarkeriari aurre hartu! lelopean herenegun Tolosaldeko Emakumeen Mundu Martxako Plataformak konzentrazioa burutu zuen Tolosaldeko Trianguloan, Barrikako emakumearen erahilketa salatuz. Plataformak jakitera eman duenez, «aurten Euskar Herrian 8 emakume erahil dituzte indarkeria sexistak», eta Plataformak erahilketa bat gertatu eta 48 ordura konzentrazioa egiteko konpromisoa hartu du.

GIZARTEA ▶

V. Skate Festa Bonberenean, gaur

Gaur V. Skate Festa antolatuta dute Bonberenean. Honen harira, hainbat ekitaldi izango dira aukeran arratsaldeko lehen orduetatik. 15:00etatik aurrera graffiti erakusketa izango da etxean. Ondoren, 16:30ean, V. Bonberenea Skate Txapelketa izango da ikusgai, aurreko urteen arrakastari jarraituz. DJ batek giroa jartzen du. 19:00etatik 21:00etara, auzokideek antolatutako festa izango da. Gaur, 5 euroren truke.



Konzentrazioaren une bat. HITZA

KULTURA ▶

Helduentzako ipuin kontalariak Iratxo tabernan

Gaur arratsaldean helduei zuzenduriko ipuin kontaketak eskainiko dituzte Iratxo tabernan, 19:00etan hasita. Bertan ariko dira Idoia Sanchez eta May Gorostiaga ipuin kontalariak. Halaber, Tolosaldean abian jarri zuten *IpuinARTEan I* proiektuko zenbait ipuinen eszenifikazioa egingo dituzte tabernan bertan.

GIZARTEA ▶

Zapatarien Eguna ospatzeko deia, astearterako

Lizarribar zapatadendako arduradunek Tolosaldeko zapatari guztiei euren dendak ixteko deialdia luzatu nahi diete astearterako, Zapatarien Eguna dela eta. Bestalde, egun honetan bertan, Krisantotako eta Daria Eguna, 10:00etan Tolosaldeko Andra Maria Elizan egingo duten meza elizkizunera joateko gonbita luzatu dute.

hitza **txokoa** lagunen
Egin zaitez HITZaren harpidedun ordaintzaile
943 30 43 46
(goizeko 8:30etik gaueko 20:30era)
zozketak, deskontuak...

PILOTA PARTIDUETARAKO SARRERAK
Aspek antolatuta astelehenean hilak 24ean 16:30ean **Beotibarren** jokatu diren pilota partiduetarako bina sarreraren irabazleak diren harpidedun laguntzaileak:

- EUGENIO ZUBELZU JAKA (Ibarra)
- IZASKUN LASA (Villabona)
- JUAN RAMON LIZARRAGA LEIZAOLA (Leitza)

CAPELLAN - APEZTEGIA // MTZ.DE IRUJO - NALDA III.a
KOKA - OLAIZOLA I
Lau 1/erdiko txapelketa
LARRALDE - AUXKIN // BERSALUZE IX.a - ARROYO II.a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZaren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

VILLABONA ▶ KIROLA

Endika Abril-eko finala jokatuko dute bihar Behar-Zanakoeek

Oiartzungo frontoi berrian izango dute hitzordu berezia; hogei urte baino gehiago badira ez zirela finalera iristen

IMANOL GARCIA

Behar-Zana elkarteak Errebote taldeak bihar jokatuko du Endika Abril txapelketaren finala. Partida berezia izango da, 20 urte baino gehiago pasatu baitira azkeneko finala jokatu zutenetik. Oiartzunen jokatu dute finala. Bertako frontoia egokitu dute errebotean jolas-teko —Villabonakoaren eta Zubietakoaren ondoren Gipuzkoako hirugarrena da— eta inaugurazio ekitaldia egingo dute. 10:00etan hasiko dira ekitaldiak, eta ondoren jokatu dute partida.

Igor Alejo, Jon Alejo, Xabier Ayerza, Eneko Gorostidi eta Sergio Sanchez izango dira Behar-Zanako jokalariek. Donibane Lohitzuneko Luzeaz Gaz-



Behar-Zana taldeko bi jokalariek, erreboteko partida batean. HITZA

te taldearen aurka jokatu dute txapela. «Haiek dira faborito», azaldu diote HITZARI Igor Alejo eta Sergio Sanchez jokalariek. «Finalaurren 13-3 irabazi zuten». Jokalari billabonatarrek «oso pozik» daude finale-ra iritsi direlako, eta «disfru-

tatzeko» asmoa dute biharko partidaren.

Bost lagunekin osatutako bi talderen arteko lehia da errebotea. Gaur egungo tenis jokoa aintzindari dela uste da. Arauak antzekoak ditu: marra batekin bi zatitan banatzen da frontoia, eta tantoa egiteko zurea ez den beste zatira bidali behar da pilota; arrastaka pasatzen bada, edo bi bote egiten baditu, edo bote bat eta beste taldekoek ez badute harrapetzen, zure taldeak egiten du tantoa. Tenisean bezala, hama-bosnaka kontatzen da tantoa, eta 60ra iristean jokoa lortzen da. 13 joko egiten dituen lehenak irabazten du.

Behar-Zana elkartetik eskualdeko pilotazale guztiak animatzen dituzte bihar Oiartzunera joatera eta billabonatar jokalariek babestera.




11:00-14:30/18:00-19:30: Baserriko produktak eta artizanak. Autokidea duan Pasanetik Zizurkil Sofoa Plazara egun guztian zehar.

12:00: "Baserriko Arria" eskulturaren inaugurazio urtebeteko ekitaldia EBELan elkarik.

13:00: "Baserriko Arria Saria" Zizurkilgo janari postu hobarenari.

14:00: Txapel erre joko Zintzuzen. Txapelak salgai Zentroan. Irizarte eta Atxalanda tabernetan. Prezio: 10 euro.

19:00: "TRINKI ETA GANTZARI JAUALDEA". Leizako Musika Eskola eta Solera eta Tapioren ikasleak.



VILLABONA ▶

18/98+ Kaiera ekimena etzi izango da herrian

Herritarren ideiak, iritziak eta ekarpenak biltzea da egitasmo honen helburua

ERREDEAKZIOA

18/98+ Kaiera ekimena Iruñean abiatu zen eta Euskal Herri guztian ariko da ibiltari. Etzi, hilak 24, Villabonara iritsiko da. Askatasunatik igorritako ohar batean dei egiten diete «pertsonek guzti-guztien esku-bide zibil eta politikoen alde egitea helburua duen ekimen honetan, herritar guztiak parte hartzea. Hitzordua Berdura

plazan izango da, 18:00etatik aurrera.

Liburuxka handi bat da kaiera, azalean Xabier Idoate margolariaren artelana duena. Herritarren ideiak, iritziak eta ekarpenak biltzea da egitasmoaren helburua. 18/98+ lan taldeak sinatutako hitzaurre bat du Kaierak lehen orrialdean, eta Euskal Herriko 100 pertsona esanguratsuren ekarpenak ditu ondoren.

ORENDAIN ▶

Herriko jubilatuek beren eguna izango dute bihar

Orendaingo jubilatuek beren eguna izango dute bihar, Udalak antolatuta. 11:15ean egingo den mezarekin hasiko da eguna eta, ondoren, Herriko Ostatuan bazkaria egingo dute, 14:00etan.

ANOETA ▶

AHTri buruzko hitzaldia Gaztetxean

Anoetako AHT Gelditu! Elkarlanak deituta, hitzaldia, hilaren 25ean, Gaztetxean, 19:00etan. Mikel Albarzek *AHT egitasmoren aurkako arrazoiak eta gaur egungo egoera* izango du mintzagai.

VILLABONA ▶

Aitor Olearen organo kontzertua

Aitor Olea organojoleak kontzertua eskainiko du gaur Jesusen Bihotza parrokiaren. 20:00etan hasiko da emanaldia. Durangon (Bizkaia) jaioa, musika ikasten Arrasaten (Gipuzkoa) hasi zen, solfeo eta pianoa ikasten. 1987an ikasle sartu zen Donostiako goi mailako musika kontserbatorioan. Carmen Ocarizek pianoan eta Esteban Elizondok organoan ematen zituzten klaseetan. Orditik musika ikasketak ugari egin ditu. Kontzertuak Frantzia, Alemanian, Ingalaterran, Gipuzkoako organojoleen zirkuluan, Ate-neo gipuzkoararen organo zirkuluan eta Donostiako Musika Hababostaldian eman ditu, besteak beste.

iragarki laburrak ▶

LANA

Garbitzaileak. Bi neska eskaintzen dira portal, eskaratze eta abarren garbiketarako. 943 68 30 57 eta 943 68 35 70.

Etxeko lanak. Emakume bat behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko arratsaldez. 661 21 28 37 (deitu goizez).

Muntatzaileak. Leitzako enpresa batek pladur muntatzaileak edo

ofizioa ikasteko gogoia duten langileak behar ditu. Lana Leizta eta inguruan. 699 65 95 26.

SALGAI

Lokala. Lokala salgai. Apaiz-erreak kalea (Ibarra). 35 m², 36.000 euro. 639 72 42 60.

Su egurra. Su egur lehorra salgai. Pagoa eta haritz. 615 75 57 62 (arratsaldez).


Beti alai jateko

Garaian garaiko janariak Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkestak. Modaren inguruan bi galdera daude webgunean. 1. Non duzu ohitura erosketak egiteko? 2. Udakenerako eta neguko eskaintzak heldu dira dendetara. Normalean jarraitzen al diozu jantzien, oinetakoaren eta antzerakoaren modari? Bigarren galderaren orain arteko erantzunak azpiko grafikoa dituzu.



BEGOÑA ARISTI ▶ GIPUZKOAKO NEKAZARI ELKARTEKO IDAZKARI OROKORRA

«Jendea asteroko azokara bueltatzea lortu nahi dugu»

Begoña Aristi baserrian bizi da, bertan lan egiten du eta Gipuzkoako EHNEko idazkaria da; «bokazioz» dihardu

MARTA SAN SEBASTIAN

Aldaba Txikiko Isastegi Goikoa baserriko alaba da bera. Begoña Aristi 27 urteko gazte tolosarra da eta, egun, Gipuzkoako EHNEko idazkari nagusia. Era berean, baserriara ere bada; lanegun erdia baserrian pasatzen du eta beste erdia, aldiz, bulegoan. Baserriarekin gozatu egiten duela nabarmentzen zaio, eta «baserriarren esku-bideak eta, bereziki, emakume baserriarrenak aldarrikatzea beharrezkoa» dela aitortzen du. Bihar Zizurkilengingodan Azoka Berezian jende asko biltzea espero du Begoña Aristik, baina, egun bereziaz gain, «asteroko azoka indartzea beharrezkoa» dela dio. **Zizurkilengainbat aldarrikapen egite nahi dituzue emakume baserriarren alde. Zer eskatzen duzue?** EBELek (Emakume Baserriarren Elkarte) emakumeak baserriaren itzalean ez egotea eskatzen du. Egindako lana onartuaz itzalea, batez ere, erabaki guneetan bere ahotsa entzutea, gizarteko partaide delako.

Ze garrantzi du emakumeak baserrian?

Beti entzun izan dugu gizona dela baserriaren jabea, eta emakumea barruko lanak egiten dituen, gizonaren atzean. Emakumearen lana baserrian oso garrantzitsua da; ikuiluan eta baratzen aritzeaz gain, baserri barruan lan asko dago, eta hori emakumeak egin ohi du. Duela gutxi lortu dugu emakume baserriarrok gizar-te segurantzaz itzalea, pentsa.

Zergatik uste duzu baserria gainbeheran doala?

Lehenengo sektorearen beherakada nabarmena da azken urteotan. Gobernuaren politika ez da onargarri izan guretzat, gainera, gure lursailetan eraikitzen ari diren azpiegiturak ere ez zaizkigu mesedegarririk. Honez gain, gazteak instalatzea oso zaila da sektorea gainbeheran doalako. Inbertsioak egin behar dira, eta bokazioa ere behar da.

Gure eskualdeko baserriak nolakoak dira?

Tolosaldean herri txiki asko dago eta, beraz, baserriak ere badira, baina asko eta asko galdu egin dira. Hemen base-

riak lursail txikia dute normalean, Gipuzkoa osoan bezala. Lurrei lotutako nekazaritza da, ez nekazaritza intensiboa. Horregatik, gure eskatzen duguna gure lurrik ekoiztutakoarekin bizi ahal izateko politika da, bertako politika bat.

Baserriko produktuak behar bezala baloratzen al dira?

Jendeak onartu behar du baserriko produktuek kalitate eskaintzen dutela, bertatik bertara produktuak direlako, agian ondoko baserrian ekoiztuak. Baina gure zailtasun asko ditugu; orain dela urte askotako salneurriekin ari gara ekoizten eta gure produktuak ez dira behar diren bezala ordaintzen.

Zein izan daiteke irtenbidea?

Gaur egun, gure borroketako bat azoka indartzea da. Azken urtetan gainbehera handia somatu dugu herrietako azoketan. Azoka bereziak asko egiten dira, baina, horietaz gain, eguneroko eta asteroko azoketan jendeak erosketak egitera bultzatu nahi dugu.

Tolosako azokaren egoera zein da?

Ni Tolosako azokan egoten naiz larunbatetan salmentan.



MARTA SAN SEBASTIAN

Tolosako egoera beste herrietakoen antzekoa da. Orain, gainera, berrantolatuta egin behar dute Zerkausia, eta gurekin, baserriarrok, ez dute ezertarako kontaktu. Gure ahotsa dugu, eta gurekin hitz egin behar harko luke Udalak.

Itxaropena non dago?

Itxaropena beti gazteengan dago, eta baserriaren kasuan ere bai. Orain, Gipuzkoa mailan, baserrian aritu nahi duen

gazte talde bat osatzen ari gara. Batzuk zortea dute guraz, berrantolatuta egin behar asko diru laguntzak behar dituzte baserria eraikitzeko eta ustiatzeko, lurren espekulazioa handia delako gaur egun. Zaila da, baina EHNEk itxaropena badu, eta elkarturik bagaude zerbait lortu dezakegula. Baserria maite dugulako uste dugu gure borroka merezi duela.

ARAMBURU
Salgai (Tolosa). Pisua igogailuarekin Larramendi kalean 112m², Bista zoragarriak,
Salgai (Tolosa). Pisua Belate ibiltozian, Bista zoragarriak, sartzeko moduan,
Salgai (Tolosa).Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate ibiltozian
Salgai (Ibarra).Pisua San Inazio auzoan, Guztin bertua. 244.000 euro
Salgai (Tolosa). Pisua San Frantziskon, 126m², Garajearekin,
Salgai (Tolosaldea). Garajeak leku ezberdinetan: Ibarra, Babiller Zaldibia kalean, Plaza zaharra...
Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Errementari kalean.
Alokatzeko (Tolosa). Garajoa P. de Tolosa kalean, Araba Etorbidean, B. Zaldibia, Igarondo.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK
Jogurta
Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

FORMAKUNTZA IKASTAROK (Langileentzat)
KUALIFIKAZIO PROFESIOALEN SISTEMA - KATALOGO MODULARRA

IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOA)	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA
Elektrodo estali bidezko angelu soldadura	80	2005-10-26	18 - 21
Analisi kontablea	85	2005-11-02	18 - 21
CNC sarpen bidezko elektrohigaduraren prestaketa eta programatzea	30	2005-11-07	18 - 21
Motor elektrikoaren abiadura-erregulazioa (Bariadoreak)	40	2005-11-07	18 - 21
Datu-Baseak administratzea (Acces-hastapena eta aurreratua)	80	2005-11-21	18 - 21
Torno konbentzionaleko mekanizazioa	80	2005-11-28	18 - 21
Fresatzeko makina konbentzionaleko mekanizazioa	80	2005-11-28	18 - 21
NEUMATIKA Teknologia pneumatikoko sistema automatikoak	30	2006-01-11	18 - 21
Beste posizio batzuetako MIG/MAG soldadura	50	2006-01-11	18 - 21
CAD 2D (Autocad)	40	2006-01-11	18 - 21
Dokumentuen informatika-elaborazioaren kudeaketa (Windows-word-excel-correo-internet)	75	2006-01-11	18 - 21
Fabrikazio-prozesuak	60	2006-01-11	18 - 21
HIDRAULIKA Teknologia pneumatikoko sistema automatikoak	30	2006-02-06	18 - 21
CAD 3D Planoak eta Moldeatua (Solid Edge)	30	2006-02-06	18 - 21
Lan giroko harremanak (Enkargatuak)	60	2006-02-06	18 - 21

ESKAINNTZA OSOA: ikastetxean edo web orrian

Matrikula eta informazioa: Tel: 943 65 11 47 • Santa Luzia, 17 •20400 TOLOSA
E-mail: idazkaritza@tolosaldea.com • Web: www.tolosaldea.com

OSTALARITZA GIDA 2006

Tolosaldeko eta Goierriko:

- Jatetxeak
- Erretegiak
- Pintxo tabernak
- Sagardotegiak

bilduko dituen gida.

Jarri zure iragarkia ostalaritza gidan

17.000 aleko banaketa zabal

Iragarkiak kontratatzeko:
943 304 333
publi@iragarri.net

Goierri **hitza**

IBARRA ▶ GIZARTEA

Herri plataforma eratu dute arau subsidiarioen harira

Arauen tramitazioa gelditzea eta herri kontsulta egitea proposatzen dute



Ibarrako arau subsidiarioen harira sorturiko herri plataformaren aurkezpen ekitaldia, herengun. I. TERRADILLOS

INIGO TERRADILLOS

«Bildu garenak Ibarrako elkarre ordezkarri, gizabanako eta herritar xumeak gara, ideia eta pentsamolde desberdinekoak». Horrela definitu zuten euren burua Ibarrako planeamenduko arau subsidiarioen inguruan sorturiko herri plataformako kideek herengun, Kultur Etxean eginiko aurkezpen prentsaurrekoan. Izan ere, «Udalak arau subsidiarioen tramitazioan hartutako jarrera ez dela egokia izan» pentsatzen dute eta, «oraindik konpondu daitekeenez», proposamen zehatz bat egitea dutela helburu azaldu zuten. Jakitera eman zuten, Udal teknikari, ordezkarri politiko zein alkatearekin hainbat bilerak egin ondoren «argi geratu zaigu herritarrek arauen inguruko prozesuan parte hartzeko udalak duen borondatekerik eza».

Arauen tramitazioa hasi berria da Ibarrako Udalean, eta bertatik ondorengo puntuak azpimarratu nahi izan zituzten: etxebizitza arazoari aurre egiteko 600 etxebizitza berri egite-

ko aukera eman nahi du Udalak, hauetatik 200 inguru babestutakoak, hau da, %30 baino gehiago. Herri plataformak, ordea, 600 etxebizitza ez baina 750 egiteko aukera jasotzen dela onartutako aurre dokumentuan azaldu zuten; gainera, Errekondone baserri inguruan 100 etxebizitza berri egiteko aukera eman nahi dutenez, dena 850 etxebizitza eraikitze-ko aukera eman nahi dela gehitu zuten, eta babestutakoak 200 izanik, kopuru guztiaren %25 baino gutxiago, beraz. Plataformako enstex, babestutako etxebizitzen portzentaje askoz altuagoa izan behar luke.

Bigarren puntuan, errepidezko komunikazioak hobetzeko azpiegitura berriak proposatzen direla eta errepide sare berri bat osatu nahi dela aipatu zuten. Halaber, Udalak barne trafikoa murrizteko Egitik pasatzen den saihesbidea bultzatu, San Bartolome kalea eta Emeterio Arrese kaleak lotuko dituen bide berri proposatu, San Bartolome kalea eta Egiagalde lotuko dituen errepidea gauzatu eta Izaskun auzora

igotzeko errepide berria egitea proposatzen duela adierazi zuten. Haien aburuz, ordea, derri-gorrezkoa da herri barneko zein kanpoko zirkulazio azterketa sakona egitea, aukera ezberdinak aztertzea eta horren arabera proposamenak egitea.

Hirugarrenez, Ibarrarako 2012. urterako ez dela biztanlearen hazkunderik aurreikusuten eta, ondorioz, gaur egungo zerbitzuak nahikoak direla jasotzen dela gehitu zuten. Plataformaren arabera, berriz, hazkundera nabaria izango da, eta 6.000 biztanleko herria bihurtuko da Ibarra; hala, zerbitzu nagusien berrazterketa eta zerbitzu berrien eskaintzaren azterketa egitea «derrigorrezkoa» izango da.

Azkenik, nekazal ustiapenen harira, garrantzia gutxietsi eta horien desagerpena gauza logiko bezala azaltzen dela errentagarritasun ezagatik eta jabegoak ustiapenekin jarraitu nahi ez izanagatik azaldu zuten. Plataformako kideek, ordea, zalantzan jartzen dute hori, eta Ibarrako biberok garrantzi estrategikoa dutela

PROPOSAMENAK ▶

Geldialdia. Ibarrako Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen tramitazioan geldiadi bat eskatzen dute.

Parte-hartzea. Herriko eragile guztiei parte hartzeko aukera emanez prozesu berri bat hastea proposatzen dute, horrela denen artean Ibarrako etorkizunari buruz hitz egiteko.

Herri kontsulta. Azken erabakia ibartar guztienta izan dadin, Udalak tramiteak berriro hasi aurretik herri kontsulta bat egitea proposatzen dute, garrantzitsuak diren gaietan herritarrek aukeratu eta erabaki dezaten.

Ekimenak. Firma bilketa, eragileekin bilerak, mozio bat aurkeztu Udalean, herritarrei arauen tramitazioari buruzko informazioa eman eta iritzirik bideratzeko aukera eskaini, eta buzonada dira herri plataformak egin ditzakeen ekimenak.

gehitu zuten, besteak beste. Gainera, udal proposamenarekin Ibarrako Piparra desagerterza hel daitekeela erantsi zuten.

Bilerak astelehenero

Herri plataformako kideek argi utzi dute irekia dela, eta edonork hartu ahal izango duela parte dituzten proposamenean. Halaber, herritarrei jakinarazi nahi diete astelehenero bilerak egingo dituztela Ibarrako Benito Izagirre kultur etxean, 19:30ean.

GIZARTEA ▶

Saharako presidentearen bisita bihar

Tolosaldeko Sahararekin elkarrekin jakinarazi du Saharako Errepublikako Arabiar Demokratikoaren (R.A.S.D.) presidentea, Mohamed Abdelaziz, bihar Euskal Herrira etorriko dela. Horrela, ongietorria eman nahi diotarik aukera izango du Leioako Artaza jauregira joateko, 17:30ean egingo zaion harriera irekiera. Halaber, hainbat ekitaldi antolatu dituzte bertan, presidenteari elkarrekin adierazteko. Tolosaldea Sahararekin elkarrekin, nahiz eskualdeko hainbat udal, horien artean Leaburu-Txaramakoak, ekitaldi horietan parte hartzerantz anima-tu nahi dituzte herritarrek.

LEABURU ▶

Sua itzaltzeko materiala nola erabili

Leaburu-Txaramako Udalak jakinarazi du gaur Tolosaldeko suhiltzaileak joango direla Leaburura sua itzaltzeko materiala nola erabiltzen den herritarrei erakustera. 16:00etan izango da hitzordua, herriko plazan. Udalak, gaia «oso garrantzitsua» denez, denen parte-hartzea eskatu du.

ERLIJIOA ▶

Donostiako Gotzainaren bisita gaur

Tolosa-Ibarra Pastoral Barriatik adierazi du gaur, 10:00etatik 12:00etara, Juan Maria Uriarte Donostiako Gotzainaren bisita izango dela Santa Maria parrokiari. Besteak beste, elizbarrutiko 2005-2010 programa aurkeztuko du.

hilberriak eta urteurrenak ▶

Teodora Landa Eizmendi

andrea

Ostegunean hil zen, Donostian, 83 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
—Goian bego—

Senideak: Enkarna, Jesus eta Consuelo, Sebeñ (), M^a Luisa eta Antonio, Arantxa eta Jose Inazio eta Manuel eta Rosario; ilobak: Jesus M^a eta Lourdes, Arantxa eta Enrique, Jose Inazio eta M^a Carmen, Arantzazu eta Peio eta Nerea eta Jesus M^a; iloba-bilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren arimaren alde oloitz bat eskatzen dizuzete eta arren etor zaitetzelaz GAUR, arratsaldeko 18:30ean, Azpaitiko Soreasuko Sebastian Donearen parroki elizan izango den hiletan elizkizunera. Aidez aurretik, mila esker.

Helbidea: Villa Sacramento (Donostian)
Osteguneko baserria (Azpaiten)
oharra ▶ Gorpua Errekalde beldategian dago

Erraustak Haizearen Orrazian botako dira itsasora gaur eguerdian

AZPEITIA, 2005eko urriaren 22a

I. urteurrena

Modesta Mujika Esnaola

Bizitza, agian, amaitzen den gauza bat izango da, baina maitasuna inoiz amaitzen ez den sentimena da.



Urteurreneko meza bihar, igandea, izango da 12:30ean, Azpaitiko Soreasuko Sebastian parrokiari

AZPEITIA, 2005eko urriaren 22a

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

LEITZA ▶ KULTURA



Manuel Lasarteren irudia, bere izeneko auzoan. J. ASTIBIA

Manuel Lasarteri buruz: 'Bizitza eta sorkuntza'

Arantzazuko Gandiaga Topagunean jarri dute ikusgai erakusketa abendura arte

J. ASTIBIA

Arantzazuko Santutegian, Bitoriano Gandiaga Topagunean, Manuel Lasarteri buruzko erakusketa bat jarriko dute ikusgai gaurtik aurrera, hurrengo abenduaren 11 artean: «Manuel Lasarte. Bizitza eta sorkuntza» du izena erakusketak, eta asteburuetan eta jai egunetan egonen da zabalik, 11:00etatik 14:00etara, goizez, eta arratasaldetan, 15:00etatik aurrera.

Erakusketa hau batez ere «bere lagunak» diren Iñaki Hernandezek, Iñaki Zubizarretak eta Julian Belokik pentsatu, osatu eta egin dute. Hirurak Manuel Lasarteren ezagupen osoa dute, eta «urteetako adiskidantza» eta denbora horretan denean buruan erabili duten asmoa omen da: «Manuel Lasarteren lagunak gara, noski, baina bere jarraitzaile suitsuak ere bai, bertsogintzari dagokionez. Bertsolari bikaina izan da bera, zuzena, serioa, umorekoa behar zenean, neurri zorrotzekoa, doinu egokikoa... Osoa», baieztatu eta adierazi

zuten egileek, «eta bertso kantatuaz gain, sormen lana ere oso oparoa du berak. Erakusketa honekin batera argitaratu du zortzigarren liburua eta», erantsi zuten. «Egindako hori guztia ezagutzera eman beharkeoa delako uste osoa dugu», arrazoitu zuten erakusketa honen nondik norakoak azaltzerakoan.

Baina ez diote Lasarteren bertso-lanari bakarrik erreparatu. «Manuel, gizona bera, ezagutzen dugu, eta arlo hori ere agertu nahi izan dugu», agertu zuten. Hortik erakusketaren beraren izena ere.

Horrela, «bere bizimodu guztia, bertsolaria, idazlea, ferratzaile eta errementaria, gurasoa, aitona...» arlo horiek denak erakusten dituzten 6 panel handi, bideoa, berari buruz 81ean egin zen pelikula berreskuratua, tresnak... daude ikusgai eta hitzaldiak ere egitekoak dira.

Asteazken honetan egin zuten erakusketa honen aurkezpena, 1927an Leitzako Franki baserrian jaio eta gazte denboran bertan bizitu zen Manuel Lasarte bera han zela.

LEITZA ▶ UDALA

Egur loterik handiena saldu da Altsasuko enkante bateratuan

Ehuneko hogeieko beherapenarekin, Zubillaga-Saralegi egur ustiapen enpresak hartu du Urdiñolako basoa



Maloko lotea, pagoa, ateratzen ari dira orain Leitzelarrean. Makinak lanean, herenegun. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Asteazken eguerdian egin zuen Nafarroako Gobernuak mendialdeko sei herritako egur loteen enkante bateratua, tartean Leitzakoak ere. Lau lote ziren enkantera ateratakoak, eta hauek handiena soilik saldu zen: gainerakoak hutsik gelditu ziren.

Ibarlan, japoniar alertzedian argiketa lanak, 19,8 mila eurotan; Koskainen, larizio-pinu eta Douglas izeian, argiketa lanak, 6,9 mila euroan; Lerinarten, larizio-pinuan argiketa lanak, 5,9 mila euroan; Urdiñolan, insigni-pinu eta alertze japoniarrean, baso ateratzea, 472,4 mila euroan. Hauexek ziren enkanterako loteen irteerako balioak. Eta, azkenik, handiena, Urdiñolako, saldu zen. Besteek ez zu-

ten eskaintzarik izan. Aipatzeakoa da, ordea, Urdiñolako lote horri dagokionez %20eko beherapena egin arte itxaron egin zutela enkantera bertaratu ziren basogintzako enpresa jotzaileek eta, gainera, batek bakarrik egin zuela eskaintza, Zubillaga-Saralegi Egur Ustiapen-ek, zehazki beherapena egin ondorengo kopurua hainakoarekin. Horrela, aitatutako lotea, 11.261 metro kubiko zur eta egurrekoa, 377.950,27 eurotan hartu zuen Leitzako bertakoa den enpresa horrek. Kopuru honi %8ko BEZ erantsi behar zai. Urtebeteko epea du orain lana betetzeko, sexteoko epea igarota, behin betiko, esleipenaren jabe egiten denetik.

Modutsu berean joan zen Altsasuko enkante saioa, orokorrean: beherapenak egin on-

doren, lote bakoitzarentzat eskaintza bakarrak aurkeztuz.

Aurreneko aldia zen egur loteak enkante bateratuan saltzen zirela, Leitzarako behinik behin, Nafarroako Gobernu Ingurumen sailak «herrietako loteak hutsik ez gelditzeko helburuz» froga modura egindakoa: herri sail bat elkartu eta beren basoetan dituzten lanak aldi berean enkanteran jarri eta ustiatzaileak hartzera bultzatzeko. Bestalde, hilabetetan luzatzen zen «prozesua mozte arren» ere, unean uneko irteerara balioekin deialdi desberdinak egin beharrean saio bakarrean erabakitze bidea eman.

Saltzekoak edo hartzekoak gelditutako loteekin herriek erabakitze ahalmena dute orain.

iragarki laburrak ▶

Gidariak. Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurilaritza. Astean 35 ordu. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Haur eskola publikoak. Haur zaintzaileak, bereziak, adinekoak eta hezitzaileak behar dira. Lanaldia, astelehenetik ostiralera. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Garbitzaileak. Lan finkoa: eraikin publikoak, ikastebeak, ospitaleak. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik

15:00etara. Informa zaitetz 943 31 37 82.
Correos. Correos-ek langileak behar ditu honako lanetarako: banaketa, sailkapena eta bezeroari arreta. Informazioa doan 943 31 37 82 telefono zenbakira deituta.
Administrari laguntzaileak. Plaza libreak daude udaltxerako. 35 orduko asteak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak. Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Sorluze, Mutriku, Zizurkil, Mendara eta Anoeta. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan 943 31 37 82 telefono zenbakira deituta.
Laborategiak. Plaza libreak. Teknikoak, ikertegiko laguntzaileak, Eusko Jaurilaritza. Informazioa doan 943 31 37 82 telefono zenbakira deituta.

ESTETIKA ZENTROA
INAUGURAZIOA

Eider

Laskorain 16 behea
TOLOSA
Telf.: 943 11 90 78



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urriaren 22a, larunbata ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez arratsaldez



beroena 18 hotzera 16

BIHARKO EGURALDIA



goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Talogintza tailerra gazteentzat. 09:00etatik 14:00etara, frontoian.
II. Kultur Astearen baitan. Gaztelu. EHNA tramitatzeko aukera, udaletxean, 17:00-etatik 19:00etara; bihar, 11:00etatik 14:00etara.
Leaburu. Sua itzaltzeko materialaren erabilera azalduko dute Tolosako suhiltzaileek. 16:00etan, plazan.
Orendain. Jubilatuta Eguna: 11:15ean, meza; 14:00etan, bazkaria herriko ostatuan.
Tolosa. Juan Maria Uriarte Donostiako Gotzainak elizbarrutiko 2005-2010 programa aurkeztuko du, 10:00etatik 12:00etara, Santa Marian.
Tolosa. Graffiti lehiaketa, 15:00etan; V. Skate Txapelketa, 16:00etan. Biak Bonberenean.
Tolosa. San Estebango Kultur Astea: 16:00etan, altxorraren bila eta mus txapelketa; 16:30ean, haur jolasak; 18:00etan, buruhandiak; 19:00etan, txokolate jatea.
Tolosa. *Eta orain zer?* Gerontologikoaren aldeko plataformako kideek balkoietan zintzilikatzeko kartelak banatuko dituzte. 11:00etatik 14:00etara, Triangulo inguruan.
Villabona. EHNA tramitatzeko aukera, Kultur Etxean. Gaur, 18:00etatik 20:00etara; bihar, 12:00etatik 14:00etara.
Zizkurkil. EHNAren tramitazioa, udaletxean. Gaur eta bihar, 11:30etik 13:30era.

MUSIKA

Tolosa. 24:00etan, Batuketao euskal samba



Eskualdean ere izan da Gaztetzulo Busa

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶ *Gaztetzulo* aldizkariak bost urte bete ditu, eta hori ospatzeko Gaztetzulo Busa jarri dute abian arduradunek. Euskal Herria zeharkatzen ari da autobusa. Atzo,

hain zuzen ere, Tolosaldeko eta Leitzaldeko igarozen. Iruñetik Lekunberrira hartuta, Leitzatik pasatuz iritsi zen Tolosara. Tolosan, Trianguloan izan zen arratsaldean (argazkian), M. SAN SEBASTIAN

taldea; ondoren, Lord Sassafras. San Estebanen, Kultur Astearen baitan.
Tolosa. Kuraia. 22:30ean, Bonberenean.

ZINEMA

Villabona. *Doraemon* filma, euskaraz. Bihar, 17:00etan, Gurean. Sarrera, 2,5 euro.

GUARDIAIKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo. 20. 943 67 60 13.

IRRATIA

Goiko irratia (107 FM)

13:00. *Kornerra* magazina. Posta elektronikoa: kornerra@hotmail.com

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Mari Karmen Aldumberri Armendariz (Berastegi). Noiz eta urte gehiago parrandarako sasoi hobe. Hauk dek hau amona! Zorionak!



URTE ASKOAN

Maialen Otamendi (Tolosa). Atzo 6 urte. Zorionak familiararen eta batez ere ahizpa Izadiren partetik.



URTE ASKOAN

Miguel Mari Ugarteandia (Albiztur). Bihar 94 urte, eta inoiz baino berriago. Zorionak guztion partetik.



ZILARREZKO EZTEIAK

Constan eta Maite (Leitza). Zorionak, eta ongi pasa. Etxeko muxarrak. J. R., N. eta E.

HITZA, zorion agurren
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara: Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA** Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

MUNDU OSOKO ERITMOAK ESKU-ESKURA
SUSTRAIER BLAI 2005
MUNDU KULTUREN 4. TOPKETA
GOETXI-GIPURKO ELIZBARRUTIA
Ormaiztegiako frontoian
urriaren
22an
larunbata
22:30etan
12 €

AMPARO Y SUS MUCHACHOS DE AMPARANOIA
JAVI P3Z ORQUESTA
KUKUMA + SAMAR
EHUNZANGO BATUKADA + DJ. TALO
KARIBERAKO BIDAIA BATEN ZOZKETA!!!